# UXÍO




Gidoia eta Irudiak: Martín Romero
Itzulpena: Bego Montorio
Astiberri Ediciones. Bilbo, 2020
Kolorea. Azal gogorra
64 orrialde. 20 x 26 cm. 12 euro
Txikiberri bilduma
ISBN: 978-84-17575-69-4

**UZTAILAREN 2AN SALGAI**

## Uxíoren irudimen oparoa

***2019ko haur eta gazteeentzako Castelao komi saria irabazi zuen album honetan, ume ameslari baten abenturak bildu ditu Martín Romero egile galiziarrak***

"Kaixo, Uxio naiz. Eta zu?".

Hitz horiekin gonbidatzen gaitu mutiko ilegorri eta bihurri batek bere komikira sartzera. Ia-ia eskutik eramango gaitu bere abentura txoroak eta ideia xelebreak deskubritzera. Uxiok lagun bat du, Ana, eta txakurtxo bat, Rosenda; horiek izango ditu laguntzaile bere joan-etorrietan, baita irudimen mugagabeak zabaltzen dizkion parajeetarako bidaietan ere. Sei urtetik aurreragokoentzako album honetako orri koloretsuek mutikoaren abentura eta gorabeherak umorez, poesiaz eta bizitasunez jasotzen dituzte, pare bat orrialdetako kontakizun laburretan bildurik. Horietakoren batean, parte hartzeko ere eskatuko dio irakurleari.

A Coruñako Diputazioak ematen duen Castelao komiki saria lortu zuen liburuak 2019an, haur eta gazteentzako atalean. Epaimahaikoen hitzetan "komikigintzaren aukera narratiboak bestelako modu interesgarri batez baliatzen ditu", "umorez, jostari eta adinera egokiturik". *Uxio* galegoz argitaratu zen lehen aldiz.

"Oso zaila da irakurle hasiberriak harrapatuko dituen komiki bat topatzea, eta are zailagoa honek beste goxotasun, sentiberatasun eta umorea duen bat aurkitzea. Martin Romerok irakurle hasiberri horiek ulertzeko dohaina du, eta euren unibertsotik mintzo zaie. Komiki zoragarria. Koloreak, gidoia, letra mota, egitura... dena ezin hobeto uztarturik dago komiki honetan, umeen artean arrakasta lortzeko moduan. Komikiekin zaletzeko, komiki zoragarriak irakurtzea dugu modurik onena. *Uxio* ospakizun bat da, umeek behin eta berriro irakurri nahiko duten kontakizuna".

**El Hematocrítico**

"Martin Romeroren *Uxio* komiki dibertigarria, surrealista eta samurra da. Ezin hobea heldu izan nahi duten umeentzat eta berriro ume izan nahi duten helduentzat".

**Kiko da Silva (2019ko Castelako Sariko epaimahaikidea)**

"Lan samurra, originala eta oso dibertigarria. *Uxio* kolore leherketa bat da. Konfeti-zaparrada baten antzekoa. Eskutik heldu eta arima beteko paraje magikoetara eramango zaitu. Umetako ametsetan bezala, dena da zirraragarria. Liburu hau irakurriko duzun bakoitzean beste ate bat zabalduko zaizu. Dozenaka mundu eta bihotz ditu barnean, indarrez taupadaka".

**Ledicia Costas (Haur eta gazte literaturako sari nazionala)**

**MARTÍN ROMERO** (A Coruña, 1981) ilustratzailea, komikigilea eta animazio zuzendaria da. Dizplina horiek guztiak uztartzen ditu proiektu askotarikoak garatzeko. Ilustratzaile jardunean, publizitaterako zein mundu editorialerako lanak egin ditu, eta Espainian, Frantzian eta Italian argitaraturiko liburuak ilustratu ditu. Sortu dituen komikien artean nabarmentzekoak dira *Las fabulosas crónicas del ratón taciturno* (2011), *Episodios Lunares* (2015) eta *La deuda* (2017); Espainian argitaratzeaz gain, frantsesera itzuli dira. Haur eta gazteen komikiaren arloko lehen Castelao saria eskuratu zuen 2019. urtean *Uxio* lanarekin.

# UXÍO, ENE ALTXORRA!






facebook.com/astiberri @astiberri
@astiberri.infantil
ASTIBERRI
astiberri.com
485 kutxatila. 48080. Bilbo
689 213 317 • prensa@astiberri.com

facebook.com/astiberri @astiberri
@astiberri.infantil
ASTIBERRI
astiberri.com
485 kutxatila. 48080. Bilbo
689 213 317 • prensa@astiberri.com